- I. Zerbitzuak emateko eskuratzen dituen datu pertsonalak fitxategiaren Arduradunak emandako aginduen arabera tratatzea; ez ditu, beraz, alde biak lotzen dituen zerbitzuak emateko behar ez diren helburuetarako aplikatuko edo erabiliko.
- II. Fitxategi horiek edota datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko behar diren langileek bakarrik erabiliko dituzte, eta langileek konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala gordeko dute eskuratzen dituzten datu pertsonalen inguruan.
- III. DBLOren 9. artikulua betez, tratamenduaren arduradunak beharrezko diren segurtasun neurriak hartuko ditu, teknikoak nahiz antolakuntza mailakoak, eskuratzen dituen datuak tratatzeko eta zaintzeko, horrela, bertan dauden datu pertsonalen segurtasuna bermatu dadin, eta ez daitezen galdu, ez aldatu, ez baimenik gabe tratatu edo eskuratu, betiere teknologiaren egoera, bildutako datuen izaera eta dituzten arriskuak kontuan hartuta, berdin dio arrisku horiek nondik datozen: giza ekintzatik, ingurune fisikotik edo naturaletik.
- Iç. Horretarako, alde biek zera adostu dute: Udalak bere fitxategietan aitoritutako segurtasun-mailari kalterik egin gabe, 3. Xedapenean jasotakoaren arabera, ALOKABIDEk aurretik aipatutako hitzarmena betetzeko normalean ikusi ahal izango dituen datu mota oinarritzko mailakoa izango da, DBLOren VIII. Tituluan ezarritakoaren arabera. Beraz, eskatu daitezkeen gutxieneko bezala, mota horretako segurtasun-neurriak hartu beharko ditu.
- ç. Hala ere, ALOKABIDEk, salbuespen gisa, bereziki babestu beharreko datuak ikusi ahal baliu, maila Altuko segurtasun-neurriak hartuko litzuke, DBLOren VIII. Tituluan azaldutakoak.
- çI. Ez du inoiz datu pertsonalik erregistratuko segurtasun maila bakoitzerako arauz ezarritako segurtasun baldintza teknikoak betetzen ez dituzten fitxategietan edota euskarrietan, beharrezkoak baitira datuak eskuratu, aldatu, galdu edo baimenik gabe

El servicio será prestado por **ALOKABIDE** en sus propios locales, ajenos al Responsable del fichero, debiendo elaborar un documento de seguridad en los términos exigidos por el artículo 88 RLOPD o completar el que ya hubiera elaborado, en su caso, identificando el fichero o tratamiento y el responsable del mismo y adoptando las medidas de seguridad a implantar en relación con dicho tratamiento.

TERCERA.- OBLIGACIONES DEL ENCARGADO DEL TRATAMIENTO.- El encargado del tratamiento se obliga a:

- I. Tratar los datos de carácter personal a los que tenga acceso para la prestación de los servicios, conforme a las instrucciones determinadas por el Responsable del fichero, y no los aplicará o utilizará con finalidades diferentes a las necesarias para la prestación del servicio que vincula a las partes
- II. Que los ficheros y/o datos de carácter personal sean manejados únicamente por aquellos empleados cuya intervención sea precisa para la finalidad contractual, quienes deberán guardar la debida confidencialidad y secreto profesional respecto a los datos personales a los que tengan acceso.
- III. En cumplimiento del artículo 9 de la LOPD, el encargado del tratamiento deberá adoptar las medidas de seguridad necesarias, de índole técnica y organizativa, para el tratamiento y custodia de los datos a los que tiene acceso de forma que se garanticen la seguridad de los datos personales en ellos contenidos, evitando su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, de conformidad con el estado de la tecnología, la naturaleza de los datos almacenados y los riesgos a que estén expuestos, ya provengan de la acción humana, del medio físico o natural.
- Iç. A estos efectos, ambas partes convienen en que, sin perjuicio del nivel de seguridad declarado por el Ayuntamiento en sus ficheros, el tipo de datos al que, con carácter general, ALOKABIDE tendrá acceso para el cumplimiento del convenio anteriormente señalado será de nivel básico conforme a lo dispuesto por el Título VIII del RLOPD, debiendo por tanto adoptar, con carácter de mínimos exigibles, este tipo o nivel de medidas de seguridad.
- ç. No obstante, para aquellos supuestos excepcionales en los que ALOKABIDE pudiera tener acceso a datos especialmente protegidos, adoptará las medidas de seguridad de nivel Alto, descritas en el Título VIII del RLOPD.
- çI. En ningún caso llevará a cabo registro alguno de datos de carácter personal en ficheros y/o soportes que no reúnan las condiciones técnicas de seguridad reglamentariamente determinadas para cada nivel de seguridad, necesarias para la protección contra el acceso, alteración, pérdida o difusión no



Usurbilgo Udala



zabaltzetik babesteko.

- çII. Ez du kopiatuko edo erreproduzituko fitxategiaren Arduradunak emandako informazioa, horren tratamendurako beharrezkoa ez bada, eta betiere, kontratu honetan aurreikusitako terminoetan.
- çIII. Tratamenduaren arduradunak ez dizkio, ezein kasutan, hirugarren bati fitxategiak eta bertan dauden datu pertsonalak ezagutaraziko, ez transferituko, ez lagako, edo zeinahi modutan jakinaraziko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperez, ez sarbide informatikoz, ezta datuak kontserbatzeko ere.
- Ë. Horretarako, kontratatuko zerbitzuak emateko datu horiek jakin behar dituzten langileei bakarrik emango die horien sarbidea, eta betebeharrak berberak izango dituzte konfidentziazitasunaren eta sekretu profesionalaren aldetik.
- Ë. Betebehar horrek Fitxategiaren Arduradunarekin dagoen kontratu-harremana amaitu eta gero ere bere horretan iraungo du.
- ËI. Kontratuari dagokion prestazioa amaitu ondoren, tratamenduaren Arduradunak, betiere fitxategiaren Arduradunak hautatzen duenaren arabera, datu pertsonalak suntsitu edo itzuli egin beharko dizkio fitxategiaren Arduradunari edo hark izendatzen duen arduradunari, baita erabilitako datu pertsonalen bat jasotzen duten euskarriak edo dokumentuak ere, eta al bait arinen eta idatziz ziurtatu beharko da datu horiek itzuli edo suntsitu direla.
- ËII. Ez dira suntsitu beharko legez aurreikusita baldin badago datu horiek gordetzea; kasu horretan, itzuli egin beharko dira eta fitxategiaren Arduradunak bermatuko du gordeta daudela.
- ËIII. Tratamendurako enkargua duenak behar bezala blokeatuta gordeko ditu datuok, tratamenduaren Arduradunarekin duen harremanetik sor litezkeen erantzukizunak direla-eta.

LAUGARRENA.- AZPIKONTRATAZIOA.- DBLOren 21.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, **ALOKABIDE**ri baimena eman zaio zerbitzuak emateko hirugarren enpresak kontratatzeko, hala nola finken administrazioa, call center, laguntza teknikoki zerbitzuak, mezularitza, eta alde biek sinatutako hitzarmena betetzeko beharrezkoak diren bestelako zerbitzuak.

ALOKABIDE sozietate publikoa da eta betebeharrak batzuk dauzka hornitzaileen kontratazioari eta azpikontratatuak enprekin egon daitekeen errotazioari dagokionez. Horregatik, ez dira aipatuko hitzarmen honetan, baina Udalaren esku jarriko dugu zerrenda bat, egun

autorizada.

- çII. No copiar o reproducir la información facilitada por el Responsable del fichero, salvo cuando sea necesario para su tratamiento y en los términos previstos en el presente contrato.
- çIII. Bajo ninguna circunstancia el encargado del tratamiento revelará, transferirá, cederá o de otra forma comunicará los ficheros y datos personales en ellos contenidos, verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su conservación, a ningún tercero.
- Ë. A estos efectos, sólo podrá permitir el acceso a los datos a aquellos empleados que tengan la necesidad de conocerlos para la prestación de los servicios contratados, que tendrán las mismas obligaciones de confidencialidad y secreto profesional.
- Ë. Esta obligación subsistirá aún después de finalizar la relación contractual con el Responsable del Fichero.
- ËI. Una vez cumplida la prestación contractual los datos de carácter personal, a elección del Responsable del fichero, deberán ser destruidos o devueltos por el Encargado del tratamiento al Responsable del fichero o al encargado que éste designe, al igual que cualquier soporte o documentos en que conste algún dato de carácter personal que haya sido objeto del tratamiento, debiendo certificar inmediatamente por escrito dicha devolución o destrucción.
- ËII. No procederá la destrucción de los datos cuando exista una previsión legal que exija su conservación, en cuyo caso deberá procederse a la devolución de los mismos garantizando el Responsable del fichero dicha conservación.
- ËIII. El encargado del tratamiento conservará, debidamente bloqueados, los datos en tanto pudieran derivarse responsabilidades de su relación con el Responsable del tratamiento.

CUARTA.- SUBCONTRATACIÓN.- De acuerdo con lo previsto en el artículo 21.1 RLOPD, se autoriza a **ALOKABIDE** para que subcontrate con terceras empresas diferentes servicios, tales como la administración de fincas, call center, servicios de atención técnica, mensajería así como aquéllos otros que sean necesarios para el correcto cumplimiento del convenio suscrito entre las partes

Habida cuenta de la condición de sociedad pública **ALOKABIDE** y sus obligaciones en relación a la contratación de proveedores y posible rotación que pudiera existir en cuanto a empresas subcontratadas, no se hace mención a ellas en el presente convenio sino



Usurbilgo Udala



ALOKABIDEri zerbitzua ematen dioten enpresekin, horrenbestez, tratamenduaren azpi-arduradun izan daitezke-eta.

Zentzu horretan, eta DBLOren 21.2 b) eta c) artikuluetan ezarritakoaren arabera, Esan behar dugu **ALOKABIDE**k enpresa horiekiko bete dituela DBLOren 12. artikuluan eta horrekin bat datozen beste batzuetan ezarritakoaren arabera..

Halaber, zerbitzua emateko orduan beharrezkoa balitz hitzarmen honetan aurreikusi ez diren beste azpikontratazio batzuk egitea, DBLOren 21. artikuluaen bigarren atalean adierazitako puntuak kontuan hartu beharko dira.

BOSGARRENA.- TRATAMENDURAKO ENKARGUA DUENAK DBLO-REN ARAUDIKO BERMEAK BETETZEN OTE DITUEN EGIAZTATZEA.- 1720/2007 Errege Dekretuaren 20.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, tratamenduaren arduradunak zaindu egin beharko du tratamendurako enkargua duenak 1720/2007 Errege Dekretua betetzeko bermeak badituela.

SEIGARRENA.- IRAUPENA.- Kontratu honek ondorioak izango ditu izenpetzen den egunetik hasita, eta indarrean egongo da tratamendurako enkargua duenak fitxategiaren arduradunari zerbitzuak emateko harremana amaitzen den egunera arte; beraz, zerbitzuak emateko kontratu nagusiari estu lotuta egongo da.

ZAZPIGARRENA.- ERANTZUKIZUNAK.- Tratamendurako Enkargua duenak kontratu honetan jasota ez dauden helburuetarako erabiltzen baditu datuok, hirugarrenei jakinarazten badizkie edo kontratu honetan zehaztutako klausulak bete gabe erabiltzen baditu, tratamendu horren erantzule izango da, eta berak egindako arau-hausteengatik eta horrek izan ditzakeen ondorioengatik erantzun beharko du.

Aldiz, tratamendurako Enkargua duenak ez du inolako erantzukizunik izango, fitxategiaren Arduradunak hala adierazita, hark izendatutako hirugarren bati datuak jakinarazten badizkio, betiere zerbitzua emateko enkargua eman baldin badio.

ZORTZIGARRENA.- IRAUNGIPENA.- Kontratu hau Kode Zibilean, Merkataritza Kodean eta indarrean dagoen Ordenamendu juridikoaren gainerako araudian ezarritako arrazoi orokorrengatik iraungiko da, eta, bereziki, honako hauengatik:

1. Iraupen-epea bete delako, epe hori zehaztuta baldin badago.

que será puesta a disposición del Ayuntamiento un listado de las que, prestando actualmente servicios a **ALOKABIDE**, podrán actuar como subencargados del tratamiento.

En este sentido y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 21.2 b) y c) del RLOPD, se hace constar que **ALOKABIDE** ha cumplido con tales empresas las obligaciones formales contenidas en el artículo 12 de la LOPD y concordantes del RLOPD.

Asimismo se hace constar que si durante la prestación del servicio resultase necesario realizar otras subcontrataciones que no se hubieran previsto en el presente contrato, deberán someterse al Responsable del tratamiento los extremos señalados en el apartado segundo del artículo 21 del RLOPD.

QUINTA.- VERIFICACIÓN DE CUMPLIMIENTO POR EL ENCARGADO DEL TRATAMIENTO DE LAS GARANTÍAS DEL RLOPD.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 20.2 R.D. 1720/2007, el responsable del tratamiento velará por que el encargado del tratamiento reúna las garantías para el cumplimiento del citado R.D. 1720/2007.

SEXTA.- DURACIÓN.- El presente contrato surte efectos desde el día de su firma y estará vigente hasta la fecha de terminación de la relación de prestación de los servicios por parte del encargado del tratamiento a favor del responsable del fichero, estando por tanto íntimamente vinculado al contrato principal de prestación de servicios.

SÉPTIMA.- RESPONSABILIDADES.- En el caso de que el Encargado del tratamiento destine los datos a otras finalidades diferentes a las recogidas en el presente contrato, los comunique a terceros o los utilice incumpliendo las estipulaciones determinadas en el contrato, será considerado también responsable del tratamiento, respondiendo de las infracciones en que hubiera incurrido personalmente y de las consecuencias que de ello pudieran derivarse.

No obstante, el Encargado del tratamiento no incurrirá en responsabilidad cuando, previa indicación expresa del Responsable del fichero, comunique los datos a un tercero designado por aquél, al que hubiera encomendado la prestación de un servicio.

OCTAVA.- EXTINCIÓN.- El presente contrato se extinguirá por las causas generales establecidas en el Código Civil, en el Código de Comercio y demás normativa del Ordenamiento jurídico vigente y, en especial, por las siguientes causas:

1. Por el transcurso de su plazo de duración, en



Usurbilgo Udala



2. Alde biak lotzen dituen zerbitzuak emateko kontratua amaitu edo iraungi delako.
3. Alderen batek kontratua bete ez duelako.
4. Zuzenbidean aurreikusitako arrazoiengatik.

Aldeetako batek kontratu honetatik eratorzen diren betebeharrak bete ez baditu, beste aldeak ezeztatutzat eman dezake kontratua, aurretiko abisurik eta kalte-ordainik gabe, eta nahikoa izango da beste aldeari kontratua deseginda dagoela adieraztea.

Alde batak zein besteak kontratu-harremana eten dezake, beste aldeak kontratu honetako klausulen arabera dagozkion betebeharrak bete ez baditu, kalte eta galerengatik legezkiokkeen kalte-ordainak alde batera utzita.

BEDERATZIGARRENA.- JURISDIKZIOA ETA FORUA.- Kontratu honen interpretazioari edo betetzeari buruz izan daitekeen edozein eztabaida edo gatazka ebazteko, aldeek espresuki adostu dute Gasteizko Auzitegi eta Epaitegien mende jartzea.

Eta ados daudela erakusteko, ale bikoiztuan izenpetu dute dokumentu hau goiburuan ageri den tokian eta egunean.

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA
EL ENCARGADO DEL TRATAMIENTO

caso de que se hubiera determinado.

2. Por extinción o expiración del contrato de prestación de servicios que vincula a las partes.
3. Por incumplimiento del mismo por cualquiera de las partes.
4. Por las demás causas previstas en Derecho.

En caso de incumplimiento por cualquiera de las partes de las obligaciones derivadas del presente contrato, la otra parte podrá dar por resuelto el mismo, sin preaviso ni indemnización alguna, siendo suficiente la comunicación de tal rescisión a la parte contraria.

Cualquiera de las partes podrá resolver la relación contractual en caso de incumplimiento por la otra de las obligaciones que le correspondan conforme a las estipulaciones del presente contrato, sin perjuicio de las indemnizaciones que, por daños o perjuicios, puedan corresponder.

NOVENA.- JURISDICCIÓN Y FUERO.- Para cualquier discusión o controversia sobre la interpretación o cumplimiento del presente contrato, las partes acuerdan someterse expresamente a los Juzgados y Tribunales de Vitoria-Gasteiz

Y en prueba de conformidad, firman por duplicado el presente documento en el lugar y fecha del encabezamiento.

FITXATEGIAREN ARDURADUNA
EL RESPONSABLE DEL FICHERO

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin, eta Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Plenoari ondoko erizpenaren onespena proposatu dio:

ERABAKIA

LEHENENGO: Udal jabetzako 19 etxebizitzan (12 Txaramunton; 7 Gernika ibilbidean) alokairuaren administrazioa eta mantenua kudeatzeko ALOKABIDE, S.A. eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzak-hitzarmena, zein datu pertsonaletarako sarbidea duen tratamendu-enkargurako kontratua onartzea.

BIGARRENA: Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean aipatutako lankidetzak-hitzarmena zein kontratua sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Udal Kontuhartzaileari eta ALOKABIDE, S.A. entitateari ematea."



Usurbilgo Udala

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, diktamena gehiengoz onartua izan da.

4.- LANPOSTUEN BALORAZIOAREN ERREBISIOA ONARTZEA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

2011n lanpostuen balorazioaren errebisio bat egin zela eta gaineratu du han hartutako akordioan esaten zela bi urtez behin udalak balorazioen errebisioa egingo zuela. Erre-bisioaren prozedurarekin hasi zirela esan du eta otsailean balorazio errebisio mahaia osatu zela. Mahai hori udal gobernuko lau ordezkari eta sindikatu bakoitzeko bi per-sonak osatzen dutela zehaztu du. Hamazazpi lanposturen berrikuspen eskaera aur-keztu zirela esan du, hamazortzi pertsonari eragiten zienak.

Mahaiak adostasuna lortzeko araudia onartu zuela adierazi du, eta horren arabera, adostasunik lortu ezean bere horretan mantenduko zirela lanpostuak eta balorazioak gaineratu du.

Prozesu guzti honetan lau bilera egin direla aipatu du.

Errebisiorako eskaera guztiak mahaiak onartu ondoren, LKS enpresako pertsona aditu batek eskaera guztiak baloratu zituen, mahaira ekarri zituen eta honek onartu ondoren, alegazio epe bat ireki zela adierazi du, ekainaren 3tik 21era. Epe horretan aurkeztuta-ko alegazio guztiak errebisatu ondoren, errebisio balorazio mahaia otsailean alegazio horien erantzuna eman zuela eta bere proposamena adostu zuela adierazi du.

[Jose M^a Rivadeneyra bertaratu da 18:15ean.]

Eskatzen ziren 17 lanposturen berrikuspen horietatik 9 lanpostutan aldaketak eman di-rela puntuaketan, eta horietatik 6tan maila aldaketa eman dela zehaztu du.

Langileei mahaiaren erabakiaren berri ere eman zitzaiela zehaztu du.

Prozesuari amaiera emateko orain plenora datorrela gaia adierazi du.

Gaineratu du adostasun maila altuarekin hartu direla erabakiak, nahiz eta bi kasutan ez den adostasun maila hori lortu eta, beraz, lanpostu horiek lehen zeuden bezala geratu direla esan du.



Usurbilgo Udala



Konklusio gisa aipatu du balorazio errebisio honen ondoren, beraien ustez orekatuago geratu dela udaletxe honen egitura lanpostuei dagokienean. Gaineratu du irizpide objektiboetan hartutako erabakiak izan direla eta koherentzia bat dagoela lanpostuen zerrendan.

Bestalde, diktaminak bi zati dituela esan du, bakoitza bere eranskinarekin. Lehenengoa orokorra dela esan du eta, aldiz, bigarren zatia eta eranskina bere familiarterako bati dagozkiola eta ondorioz, abstentzio kausa egonik, bozketa horretan ez duela parte hartuko.

Publikotik Ekhiñe Egiguren udal arkitektoak galdetu du ea errebisio honek gainerako lanpostuetan izan dezakeen eragina baloratu den.

Alkateak erantzun dio erabakiak hartzerakoan orokortasun batean begiratu direla eta begiratu dela desorekak ez sortzeko.

Publikotik Ekhiñe Egigurenek galdetu du ea horren ondorioz udalak ofizioz baloratu duen lanposturen bat.

Alkateak erantzun dio udalak bi lanpostu eskatu zituela ofizioz errebisatzea.

Publikotik Egiguren andreak galdetu du ea 17 errebisio horietatik aparte diren bi horiek.

Alkateak erantzun dio 17 horien barruan daudela ofizioz errebisatu direnak ere.

Batzarkideek, Pertsonal Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta erabaki hauek hartu dituzte:

“2010eko azaroaren 23an Usurbilgo Udaleko Alkateak Usurbilgo Udala eta Kirol Patronatoko langileen antolakuntza organigrama eta funtzioen deskripanen dokumentua onartu zituen eta 2011ko maiatzaren 17an berriz, Udalbatzak Usurbilgo Udaleko eta Kirol Patronatoko lanpostuen balorazioari behin betiko onarpena eman zion. Erabaki hartan zehazten zen, lanpostuen funtzio eta balorazioaren errebisioa bi urtez behin egingo zuela Udalak.

Udalbatzak 2012ko uztailaren 27an onartutako Usurbilgo Udaleko Langileen Lan Baldintzak arautzen dituen akordioaren 4. eranskinean zehazten dira errebisio hau aurrera eramateko prozeduraren ildo nagusiak.

4. eranskin honetan honakoa xedatzen da, besteren artean:

Otsailean Balorazio Errebisio Mahaia osatuko da udaleko ordezkariekin (udal korporazioko lau kide eta bi ordezeko, korporazioak berak hautatuak) eta langileen lau ordezkari titular eta bi ordezeko (3 sindikatu bakoitzetik, sindikatuek



Usurbilgo Udala



hautatuak). Hori horrela eskaera horiek izapidetzara onartzen diren edo ez erabakiko du mahaiak.

Horretaz gain, eranskin honetan arautua ez dagoen guztia, hala nola, Mahaiaren funtzionarmendua, eskaerak izapidetzara ez onartzeko kriterioak eta abar, Mahaiak berak gehiengo soilez onartutako arautegian zehaztuko da.

2013/0555 dekretuaren bidez Alkateak honakoa erabaki zuela besteren artean:

Funtzioen deskribapen eta lanpostuen balorazioen errebisioari hasiera ematea, eta honetarako eskabideak aurkezteko epea irekitzea. Horretarako epea ekainaren 3tik 21era bitartekoa izango da.

Eskabideak aurkeztu ondoren, eta Balorazio Errebisio Mahaiak hauek onartuta, horretarako kontratatutako enpresa aholkulariak bere proposamena egin ziola Balorazio Errebisio Mahaiari. Azken hau honako datetan bildu zela proposamenaren gainean eztabaidatzeko: 2013ko azaroaren 20an, abenduaren 5ean eta 10ean.

Langileei 10 laneguneko epea eman zitzaiela Balorazio Errebisio Mahaiaren proposamenaren aurkako alegazioak egiteko.

Balorazio Errebisio Mahaiak 2014ko otsailaren 14an, alegazio hauek aztertu eta funtzioen deskribapen eta lanpostuen balorazioaren gaineko proposamenak onartu zituela.

Espedientean Pertsonal Teknikariak, Idazkariak eta Kontuhartzaileak sinatutako txostena aurkitzen da.

Espedientean Balorazio Errebisio Mahaiak onartutakoa aurkitzen dela, LKS enpresak egindako aholkularitza lanari lotuta.

Diktamena osatzeko asmoz, martxoaren 17an pertsonal batzordean, eginiko proposamena bozketara jarri denean honako emaitza jaso du:

1. bozketa:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta

Abstentzioak: Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkola eta Ricardo Crespo

2. bozketa:

Aldeko botoak: Alaiz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta

Abstentzioak: Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkola eta Ricardo Crespo



Usurbilgo Udala

Beraz, pertsonalgo batzordeak kasu bakoitzean gehiengoz proposatutako erizpena kontutan hartuta eta langile baten kasuan azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluko abstentzio kausa egonik (2. bozketan):

1. bozketaren ondorioz honako erabakiak hartu ditu Udalbatza Plenoak gehiengoz:

E R A B A K I A K

Lehenengoa: Atxikita dagoen taularen arabera (Eranskina I), bertan zehazten diren lanpostuen balorazioa onartzea, bertan zehazten den puntuazio eta graduak onartuz.

Bigarrenkoa: Lanpostuen balorazioaren inguruan Balorazio Errebisio Mahaiak egindako proposamena (langileei aurrez jakinarazi zaiena, berriz ere, erabaki honen jakinarazpenean atxikita) guztiz onartzea, bai puntuazio, alegazioen erantzun bai ondorioei dagokionean.

Hirugarrenkoa: Erabakiaren berri langileen ordezkarietara eta beren lanpostua errebisatua izan den langileei ematea.”

Honela izan da bozketak:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia eta Iñaki Ugarte Aguirre.

Abstentzioa: Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, gehiengoz onartua izan da.

“2. bozketaren ondorioz honako erabakiak hartu ditu Udalbatza Plenoak gehiengoz:

E R A B A K I A K

Lehenengoa: Atxikita dagoen taularen arabera (Eranskina II), bertan zehazten diren lanpostuen balorazioa onartzea, bertan zehazten den puntuazio eta graduak onartuz.

Bigarrenkoa: Lanpostuen balorazioaren inguruan Balorazio Errebisio Mahaiak egindako proposamena (langileari aurrez jakinarazi zaiona, berriz ere, erabaki honen jakinarazpenean atxikita) guztiz onartzea, bai puntuazio, alegazioen erantzun bai ondorioei dagokionean.

Hirugarrenkoa: Erabakiaren berri langileen ordezkarietara eta langileari ematea.”



Usurbilgo Udala



Honela izan da bozketa (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluko abstentzio kausa egonik, Mertxe Aizpuruak ez du bozketan parte hartu):

Aldeko botoak: Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia eta Iñaki Ugarte Aguirre.

Abstentzioa: Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, gehiengoz onartua izan da.



Usurbilgo Udala

BALORAZIO PROPOSAMENA. ERANSKINA I

Lanpostuaren izena	Langilearen izena	GAUR EGUNGO MILLA	Ezaguiz/Esperi		In/Di/Téc.		Autonomia		NLA		BLA		HA		ANB		ON		Puntuazio Orokorra	Proposatutako Milla	
			G	P	G	P	G	P	G	P	G	P	G	P	G	P					
IDAZKARITZA																					
IDAZKARITZAKO ADMINISTRAZIOA	Josune Inbar Zapirain	13	2	40	3	40	2	30	3	50	1	0	3	40	1	0	1	0	200	13	
ARTXABARIA	Hornitu gabe	13	2	40	3	40	2	30	3	50	1	0	3	40	1	0	1	0	200	13	
KONTUHAZTALTZAITZA	Marian Aizuna Errasti	14	3	50	3	40	3	50	3	50	1	0	3	40	1	0	1	0	230	14	
DIRUZINA	Marijo Berzartua Salasamendi	13	2	40	3	40	3	50	3	60	1	0	2	30	1	0	1	0	220	14	
UDAL TZAINGOA																					
KABONUDALTZAINBURUA	Pablo Zubeldia Maiz	13	3	40	2	30	3	40	3	40	3	40	3	40	1	0	1	0	230	14	
ZERBITZU ETA MANTENUA																					
KALE GARBIETAKO ORZAILA	Rafael Corral Tendero	11	2	30	1	10	1	10	2	30	2	40	1	0	3	40	1	0	180	11	
OPERARIO LAGUNTZAILA	Joakin Okoiberea Vitoria	7	1	10	1	10	1	10	2	30	1	0	1	0	3	40	1	0	100	7	
	Mikel Arriaga Inasusti	7	1	10	1	10	1	10	2	30	1	0	1	0	3	40	1	0	100	7	
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUAK																					
GIZARTE LANGILEA	Olatz Olamendi Baranguan	14	3	50	3	40	3	50	3	40	2	20	3	50	1	0	1	0	250	15	
	Kontxi Zaldia Otegi	14	3	50	3	40	3	50	3	40	2	20	3	50	1	0	1	0	250	15	
KULTURA																					
LIBURUTEGIKO ARDURADUNA	Marian Aizuna Errasti	15	3	50	3	40	3	50	3	50	2	20	3	40	1	0	1	0	250	15	
KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIA SALEKO BURUA	Maitia Inbar Argite	16	3	50	3	50	4	60	3	50	2	20	3	40	1	0	1	0	270	16	
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILA	Bakertxo Irujan Garmendia	12	2	40	2	30	2	30	2	30	1	0	3	50	1	0	1	0	190	12	
KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIAKO ADMINISTRAZIOA	Hornitu gabe	12	2	40	2	30	2	30	2	30	1	0	3	50	1	0	1	0	190	12	
ITZULTZAILA	Lurdes Zubeldia Errastin	13	2	40	3	40	2	30	3	50	1	0	3	40	1	0	1	0	200	13	
	Lurdes Zubeldia Errastin	13	3	40	3	50	2	30	3	50	1	0	3	40	1	0	1	0	210	13	
GARAPEN EKONOMIKOA																					
GAIXOAREN EKONOMIKOA ETA HEZKUNTZA SALEKO BURUA	Josune Mujika Tolarekipi	16	3	50	3	50	3	50	3	50	2	30	3	40	1	0	1	0	270	16	
KIROLA																					
KIROI, SALEKO BURUA	Itxaki Yurrarandi Mendizabal	17	3	50	3	50	4	60	3	50	1	10	3	40	1	0	1	0	260	16	
KIRODEGIKO INSTALAZIOEN IRANULTZAILA	Jose Mari Etxami Elizondo	10	2	30	2	20	2	20	2	30	1	0	1	0	2	30	1	0	140	10	

BALORAZIO PROPOSAMENA. ERANSKINA II.

Lanpostuaren izena	Langilearen izena	GAUR EGUNGO MILLA	Ezaguiz/Esperi		In/Di/Téc.		Autonomia		NLA		BLA		HA		ANB		ON		Puntuazio Orokorra	Proposatutako Milla
			G	P	G	P	G	P	G	P	G	P	G	P	G	P				
HIRIGINTZA / OBRAK / INGURUGIROA	Felix Aizpurna Arcañus	17	4	70	3	50	4	60	4	60	1	0	3	50	1	0	1	0	290	17
UDAL APARELADOREA	Felix Aizpurna Arcañus	17	4	70	3	50	4	60	4	60	1	0	3	50	1	0	1	0	290	17
ZERBITZU ETA MANTENUA	Felix Aizpurna Arcañus	18	4	70	3	50	4	70	4	60	2	30	3	50	1	0	1	0	330	19
ZERBITZU ETA MANTENUA SALEKO BURUA	Felix Aizpurna Arcañus	18	4	70	3	50	4	70	4	60	2	30	3	50	1	0	1	0	330	19



Usurbilgo Udala

5.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN HASIERAKO ONARPENA.

Alkateak adierazi du aurreko puntuarekin lotura zuzena duela puntu honek. Behin lanpostuen deskribapen eta balorazioari buruz berrikuspena egiten denean bertan proposatzen diren aldaketak onartu ondoren, lanpostuen zerrendan ere aldaketa egin behar dela adierazi du. Beraz, aurreko puntuan onartu diren aldaketa horiek lanpostuen zerrendan gauzatu behar direla esan du.

Batzarkideek, Pertsonal Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Usurbilgo udalak, lanpostuen funtzioen deskribapen eta balorazioaren gaineko berrikuspena eginda, bertan proposatzen diren aldaketak onartuz gero, lanpostuen zerrenda aldatu egin behar da.

Espedientean Pertsonal Teknikariak, Idazkariak eta Kontuhartzaileak sinatutako txostena aurkitzen da.

Gaia 2014ko martxoaren 17an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren, gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta.
- Kontrako botoak: Luis Mari Ormaetxea
- Abstentzioak: Josune Urkola eta Ricardo Crespo.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatza plenoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko Lanpostuen Zerrendari hasierako onarpena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”



Usurbilgo Udala



Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia eta Iñaki Ugarte Aguirre.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Abstentzioa: Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena gehiengoz onartua izan da.

6.- USURBILGO UDALERRIAN HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA HASIERAZ ONARTZEA.

Jose M^a Rivadeneyra zinegotziak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Ordenantza honen aldaketa ingurumen batzordean aurkeztu zela esan du eta han eman zituen azalpenak gaur berriro hemen emango dituela zehaztu du. Hori horrela, ordenantza berri hau zergatik aurkezten dutenari buruz esan du bost urte pasa direla azken ordenantza onartu zenetik, geroztik zenbait aldaketa puntual egon direla, baina esperientziak erakutsi diela esan du ordenantza hori aplikatzeko gauza batzuk ukitu behar zirela. Azkeneko bi urteetan asmo horrekin zebiltzala esan du, baina goitik behe-rako errebaso hau nahiago izan zutela uztea sortzez besteko ezarpena jarri arte.

Behin errebisatzen hasita konturatu direla esan du sortzez besteko ezarpenak ez zuela eskatzen aldaketa handirik zerbitzuetako ordenantzari, bai ordea ordenantza fiskalean.

Errebisio horretan hondakinen inguruan udalean dabilen lantaldea aritu dela bereziki esan du, udal teknikarien laguntzarekin.

Bestalde, hainbat erreferentzia kontsultatu direla esan du eta oinarri legala Estatuko 22/2011 legea dela dio. Aipatutako legea 2011n sartu zela indarrean dio baina 2013ko uztailan zenbait aldaketa izan zituela eta aldaketa horiek kontutan hartu dituztela. Beste erreferentziak inguruko herrietan egindako ordenantza berriak izan direla esan du, horietan, izandako esperientziak, aldaketa legalak, etab. jada jasota zeudelako, hala nola, Lezo, Astigarraga, Pasaia. Hau guztiaz gain, Eusko Jaurlaritzak argitaratuta daukan Ordenantza Markoa eta *Federacion Española de Municipios y Provincias*-ek duen Ordenantza Markoa ere kontsultatu direla gaineratu du.

Aldaketa nagusienak zeintzuk diren zehaztu du:

Aldaketa handienak atez ate biltzen ez diren hondakinen inguruan daudela aditzera eman du. Orain arte indarrean dagoen ordenantza nahiko zentratuta dagoela atez ate-



Usurbilgo Udala



ko bilketan esan du eta beste bilketak ere jasotzeko eta zenbait gauza garbiago jartzeko beharra ikusi dutela adierazi du. Ordenantza berrian beste bilketak (olioa, oihalak, beira) eta bilketa bereziak (azokak, ibilgailuak, animaliak) hobeto jasota geratzen direla azpimarratu du.

Poligonoetako bilketari dagokionez, bilketa hau 2010ean hasi zela dio eta esperientziak erakutsi diela esan du zenbait kontu hobeto begiratu behar zirela eta ordenantza berrian bilketa honi buruzko hainbat artikulua daudela esan du.

Konpostari dagokionez, hainbat artikulua jasotzen direla esan du eta baita konposta bultzatzeko udalarentzako derrigortasuna ere.

Ordenantza berri honetan euskararen tratamendua ere hobetzen dela adierazi du. Bestalde, testuan bertan bi hizkuntzen artean desberdintasunak baleude lehenetsuna euskarak duela jasotzen dela esan du.

Infrakzio eta isunen atala dela dio agian gehiena aldatu dena. Atal honi dagokionean aldaketa legal garrantzitsuak egon direla aipatu du. Hori horrela, aldaketa horiengatik eta izandako esperientziagatik atal guztia aldatu dela aditzera eman du. Proposamen berri honetan, orokorrean, isunen kopuruak dexente jeisten direla esan du eta beraien ustez arau-hausteen sailkapena hobeto antolatuta geratzen da.

Aldaketak orokorrean aipatutakoak direla esan du eta proposatzen den ordenantza indarrean dagoena baino hobe dela adierazi du.

Proposamen honen aurka agertzea, nolabait indarrean dagoen ordenantzaren alde agertzea dela adierazi die batzarkideei.

Batzarkideek, Ingurumena Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.17/2014-0112

“Usurbilgo herritarrek eskubidea dute gizakiarekiko harmonian dagoen ingurumenaz gozatzeko, eta erakunde publikoek, tartean Usurbilgo udalak, ingurumena zaintzeko betebeharrak legala dute. Hondakinen kudeaketak eragina zuzena du ingurumenean, eta horregatik, Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2008ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, hondakinei buruzko ordenantza berria onartu zuen, atez ateko bilketaren bidez Usurbilen sortutako hondakinek eragindako kalteak murriztearren. Geroztik, ordenantza hura egokitzeko beharrezkoak suertatu diren egokitzapenak egin ditu Plenoak. Hala eta guztiz ere, atez ate bilketa hasi eta bost urte igarota, beharrezkoa da berrikuspen orokor bat ematea orduan onartutako ordenantzari.

Ordenantza hau hiru tituluetan egituratzen da. Lehenengoan, xedapen orokorrak ezartzen dira. Bigarrenak hondakinen bilketaren baldintzak arautzen ditu. Titulu honetan kokatzen dira aldaketa handienak aurreko ordenantzarekin alderatuz:



Usurbilgo Udala



bilketen sailkapena berregiten da, gehiago zehazten dira atez ate ez diren bilketen eta industriagunetan egindako bilketen baldintzak, eta konpostatzeko jardueren erregimena azaltzen da. Hirugarren tituluan zehazpen araubidea egokitzen da, urte hauetan metatutako esperientzia jasoz.

Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen udal ordenantzak honela dio hitzez hitz:

USURBILGO UDALERRIAN HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Zergatien azalpena

Usurbilgo herritarrek eskubidea dute gizakiarekiko harmonian dagoen ingurumenaz gozatzeko, eta erakunde publikoek, tartean Usurbilgo udalak, ingurumena zaintzeko betebeharrak legala dute. Hondakinen kudeaketak eragina zuzena du ingurumenean, eta horregatik, Usurbilgo udalbatzarrak, 2008ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, hondakinei buruzko ordenantza berria onartu zuen, atez ateko bilketaren bidez Usurbilen sortutako hondakinek eragindako kalteak murriztea helburua zuena. Geroztik, ordenantza hura egokitzeko beharrezkoak suertatu diren egokitzapenak egin ditu Udalbatzarrak. Hala eta guztiz ere, atez ate bilketa hasi eta bost urte igarota, beharrezkoa da orokorrean berrikustea orduan onartutako ordenantzari. Hori da testu honen xedea.

Ordenantza hau hiru tituluetan egituratzen da. Lehenengoan, xedapen orokorrak ezartzen dira. Bigarrenak hondakinen bilketaren baldintzak arautzen ditu. Titulu honetan kokatzen dira aldaketa handienak aurreko ordenantzarekin alderatuz: bilketen sailkapena berregiten da, gehiago zehazten dira atez ate ez diren bilketen eta industriagunetan egindako bilketen baldintzak, eta konpostatzeko jardueren erregimena azaltzen da. Hirugarren tituluan zehazpen araubidea egokitzen da, urte hauetan metatutako esperientzia jasoz.

I TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua. Helburua

1. Ordenantza honek, Udalaren eskuduntzen barruan, Usurbilgo udalerriko kaleetan, etxebizitzetan zein enpresetan sortutako etxe hondakinen eta merkataritzako hondakin ez arriskutsuen bilketa eta tratamendua arautzen du. Bere helburua sortutako hondakinen bereizketa, berrerabilpen eta birziklapen tasarik altuenak lortzea da, horrekin batera Usurbilgo herriak bere hondakinekin ingurumenari eragindako kaltea minimizatuz.



Usurbilgo Udala

2. Era berean, ordenantza honek kudeaketa bideratzen duen udalaren eta zerbitzua erabiliko dutenen arteko harremana arautzen du, alde bakoitzaren eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehaztuz.

2. Artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honen lurralde eremua Usurbilgo Udal barrutia da. Usurbilen bizi edo egoitza duen pertsona fisikoei zein juridikoei, baita aldi baterako bisitariei, eta, orokorrean, Usurbilgo udal barrutian etxeko hondakinak sortu edo uzten dutenei dagokie ordenantza honetan araututakoa.

3. Artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako honako hau hartuko da:

- «Hondakin» gisa: Hondakin eta kutsatutako zoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeko 3. artikuluan zehaztutako edozein sustantzia edo gauza, baldin eta horren edukitzaileak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu. Nolanahi ere, Europako Batasuneko Erakundeek onarturiko Hondakinei buruzko Europako Katalogoan (CER) adierazten direnak ere hartuko dira hondakin gisa.
- «Etxe Hondakin» gisa: 22/2011 Legeko 3. artikuluaaren arabera, etxeko jardueretan sortutako hondakinak izango dira.

Halaber, etxeko hondakintzat hartuko dira zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeen hondakinak. Gainera, kategoria horren barne hartzen dira etxeetan sortzen diren zenbait hondakin, hala nola, tresna elektriko eta elektronikoak, arropa, pilak, metagailua, altzariak eta lanabesak, bai eta etxeko eraikuntza eta konponketarako obra txikiak sortutako obra-hondakinak ere. Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publiko, berdegune eta aisialdi guneak garbitzen direnean sortzen diren hondakinak, bai eta etxeko animalia hilak eta kalean utzitako ibilgailuak ere.

1. «biohondakina» gisa: 22/2011 Legeko 3. artikuluaaren arabera, lorategien eta parkeetako hondakin biodegradagarriak, eta etxebizitzetan zein jatetxeetan, tabernetan edota denda txikizkarietan sortutako sukaldeko eta bestelako jakien hondakinak, baita ere jakiak prozesatzeko plantetan sortutako antzeko hondakinak. Oro har, aurreko puntuan ezartzen den heinean, zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeenak ere etxeko biohondakin gisa hartzen dira.
2. «Errefusa» gisa: Ordenantza honen arabera gaikako bilketarako definitutako inongo hondakin taldetan zerrenda ezin daitezkeen hondakina.

Gainontzeko kontzeptuen definizioak 22/2011 Legea edo ordezkutzen dutenaren arabera izango dira.

4. Artikulua. Udalaren eskuduntzak

- Usurbilgo Udalari dagokio ordenantza honetan ezarritako moduan, etxebizitzetan, merkataritzan, zerbitzu eta industrietan sortutako etxe hondakinak, zein



Usurbilgo Udala

merkataritzako hondakin ez arriskutsuak, bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua ematea, hurrengo xedapen eta esparru juridikoak aintzat hartuz:

- 22/2011 Legearen 12.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Euskal Autonomia Erkideagoak xeda ditzakeen araudien arabera.
 - Ekoizlearen erantzukizun erantsiaren arloan dagoen araudi juridikoa aintzat hartuta.
- Halaber, Usurbilgo Udalari dagokio, hondakinen inguruan, zainketa eta ikuskaritzalanak egitea, bai eta bere eskumenen alorrean zigorrak ezartzearen ardura ere. Beraz, udalak badu hondakinen kudeaketa zuzena egiten dela egiaztatzen duen edota legeak behartzen duen edozein agiria eskatzea, eta eskaera jasotzen duena behartuta dago agiri hori ematera.

5. Artikulua. Dagokion legeria.

Ordenantza honek hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak eta hondakinen arloko beste legeriak ezarritakoari eusten dio.

6. Artikulua. Zerbitzuaren derrigortasuna.

- a) Etxe, merkataritza, zerbitzu eta industrietan sortutako etxe hondakinak eta merkataritzako hondakin ez arriskutsuak dituztenek derrigorrez Usurbilgo Udalari eman behar dizkiote hondakin horiek, ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan.
- b) Zerbitzua ematen den enpresa-poligonoetan kokatutako establezimendu edo lokal guztietako errentariak eta jabeak, zerbitzuan alta hartzeko behartuta daude. Establezimendu edo lokalaren errentariak edo jabeak, zerbitzuan alta hartzen ez badu, Udalak emango dio alta ofizioz.

7. Artikulua. Galarazpenak.

Ondokoak debekatuta daude:

- a) Udalak hondakinak uzteko definitutakoak ez diren tokietan botatzea edo abandonatzea.
- b) Norberarenak ez diren eta bilketarako guneetan utzitako ontziak manipulatzeko, hustea, edota bere edukia arakatzea edota hartzea.
- c) Kaleetan eta parkeetan jarritako hondakinen bilketarako zakarrontziak manipulatzeko, hustea, edota bere edukia arakatzea.
- d) Lur-sail publiko edo pribatuetan hondakinak erretzea, ondoko artikuluan ezartzen den kasuan izan ezik.
- e) Etxe hondakinak eta merkataritzako hondakin ez arriskutsuak biltzea, Udala bera edo Udalak agindutako pertsona fisiko edo juridikoa ez bada.

8. Artikulua. Landa eremuko landare-hondakinak erretzea.

Landa eremuko nekazaritza eta basogintza lanetan sortutako landare-hondakinak erre daitezke, beti ere ondoko baldintzak betetzen badira:

- I. Hondakin horiek konpostatzeko edo garraiatzeko behar den baliabiderik ez du hondakinen jabeak.



Usurbilgo Udala

- II. Aldez aurretik baso administrazioaren baimena eduki beharko da, erreketak egiteko baldintzak eta badaezpada hartu beharreko neurriak zehazten dituena.
- III. Arriskurik ez badago eragindako keak inguruko etxeetan edo bideetan eragozpenak sortzeko.
- IV. Ahal den ke gutxien sortu behar da, eta, zehazki, erre behar diren landare-hondakinak guztiz lehorrak egon behar dute.

9. Artikulua. Zerbitzuaren tasak.

- Usurbilgo Udalak zehaztuko ditu udal ordenantza fiskaletan hondakin zerbitzuei dagozkien tasak, uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, 11.3 artikuluan xedatutakoarekin bat eginez. Horrela izanik, erabiltzaile bakoitzak berak sortutako hondakinak bildu, garraiatu, tratatzea, eragiketa horien zaintza, eta instalazioak itxi ondorengo mantentze-lanen ondorioz sortutako egiazko kostuen arabera ordaindu beharko du.
- Usurbilgo Udalak zerga-neurriak zehatz ditzake hondakinen sorrera prebenitzeko, gaikako bilketak ezartzeko, hondakinen kudeaketa hobetzeko, birziklatze-merkatuak bultzatzea eta sendotzeko, baita 22/2011 Legeak, 16.1 artikuluan aurrez ikusten duen bezala, hondakinen sektoreak negutegi gasen igorpenak arintzeko ere.

II TITULUA. BILKETA ZERBITZUAK

I. Kapitulumua. Bilketa zerbitzuei buruzko xedapen orokorrak

10. Artikulua. Bilketa motak.

- Ordenantza honetan ondoko bilketa motak bereizten dira: bilketa arrunta eta bilketa bereziak.
- Bilketa arruntak udalak emandako zerbitzuak dira, derrigorrez erabili beharrekoak. Era berean, bilketa arrunta bi motatakoa izan daiteke: atez ate egindako bilketa arrunta eta atez ate ez den bestelako bilketa arruntak.
- Bilketa bereziak, erabiltzaileak eskatutakoan soilik eskaintzen diren bilketa motak dira.

11. Artikulua. Hondakin bilketa. Ardura.

1. Ordenantza honetan araututako hondakinak biltzeko ardura Usurbilgo Udalak soilik du.
2. Usurbilgo Udalak hondakinen kudeaketa-jarduerak zuzenean edo tokiko araubidearen arloko legedian aurreikusitako beste edozein modutan egin dezake.
3. Enpresaren batek udal bilketa zerbitzura egokitzeko arazoak balitu, Udalak hondakin horien kudeaketa baimendutako kudeatzaile baten bidez egin dezake.



Usurbilgo Udala

4. Bere ezaugarriengatik edo kopuruarengatik bere kudeaketa zailtzen duten hondakinak dituztenak derrigortuta daude ezaugarri horiek ezabatzeko neurriak hartzera. Bestela, Udalak ez die bilketa zerbitzurik emango, eta, derrigorrez, Udalak baimendutako hondakin kudeatzaile baten esku utzi behar dituzte hondakin horiek. Horrelako kasuetan, udal bilketa zerbitzua erabiltzen ez duena derrigortuta dago udalari bere hondakinei buruzko datuak urtero, urtarrilak 31a baino lehen emateko. Datu horiek izango dira, gutxienez, bildutako hondakin kopurua, hondakin mota bakoitzeko.

12. Artikulua. Zerbitzuaren zehaztasunei buruzko informazioa.

Udalak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programazioa: Egunak, ordutegiak eta bitartekoak (informazio ohola, web-orria, informazio liburuxka, publizitatea, tokiko aldizkariak etab.). Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzen jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Udalak, aldeztu aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketan berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu Udaleko Alkateak. Zehaztapenak Alkatetza-Bandoaren bidez erregulatuko dira.

13. Artikulua. Hondakinen jabea.

Etxe hondakinen eta merkataritzako hondakin ez arriskutsuen sortzaileek, zein hondakinak dauzkatenek, ordenantza honek ezarritako baldintzetan utzi beharko dituzte hondakinak udalaren esku. Hortik aurrera, udala izango da hondakinen jabea.

Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan ordenantza hau eta gainerako lege-arauak bete badituzte.

14. Artikulua. Larrialdiak.

Larrialdi egoerak ematen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoerengatik zerbitzuak eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak aldeztu aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Udalak bidezko aginduak eman bitartean.

II. Kapituluak. Atez ateko bilketa zerbitzu arrunta.

15. Artikulua. Nori dagokio atez ateko bilketa zerbitzua erabiltzea.

- α) Usurbilgo Udalak antolatuko ditu atez ate bilketa egiteko ibilbideak, ahal den etxebizitza eta enpresa guztiei zerbitzua emateko. Ibilbide horietan kokatutako etxebizitzek zein enpresek derrigorrez erabili behar dute atez ate zerbitzua beren etxe hondakinak zein merkataritzako hondakin ez arriskutsuak emateko.
- β) Udalak antolatutako ibilbideetatik at gelditzen diren etxebizitzek eta enpresek udalak eskaintutako beste bilketa zerbitzu arruntak erabiliko dituzte beren hondakinak emateko.

16. Artikulua. Bilketa zerbitzuaren definizioa.

Atez ate bilketa zerbitzuaren eginbeharrak honako hauek dira:



Usurbilgo Udala

- Hondakinak utzi behar diren tokietatik bilketarako ibilgailuetara eraman eta hustu.
- Hustu ondoren, edukiontziak bere lekuetara itzuli.
- Lan hauen ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.
- Hondakinak dagozkion tratamendu edo transferentzia gunetara eraman eta han hustu.
- Hondakinatarako ontzien euskarriak aldiro-aldiro garbitu eta horien mantentze lanak egitea.

17. Artikulua. Atez ate biltzen diren hondakinak.

1. Etxebizitzetan eta kalean kokatutako establezimenduetan ondoko hondakinak bilduko dira atez ate:
 - Biohondakina, inausketa eta lorategietako hondakina izan ezik.
 - Ontzi arinak.
 - Papera eta kartoia.
 - Pardelak eta antzekoak.
 - Errefusa.
2. Poligonoetan kokatutako enpresetan ondoko hondakinak bilduko dira atez ate:
 - Biohondakina, inausketa eta lorategietako hondakina ez ezik.
 - Ontzi arinak: Plastikozko ontziak, metalezko ontziak eta brick motako ontziak.
 - Paletizatu eta paketatze erabiltzen den plastikoa, betiere garbitasun-maila egokia badu.
 - Beste plastiko mota birziklagarriak.
 - Paperezko eta kartoizko ontziak eta paperezko nahiz kartoizko hondakinak.
 - Egurrezko ontziak (paletak) eta egur-hondakinak, besteak beste, zikindu gabeko zerrautsa, txirbila, egur-ebakinak, partikula-taulak, oholtzak etab...
 - Errefusa
3. Hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko, edota balioa emateko aukerak sortzen diren heinean, zerrenda honetan atal berriak sartzeko aukera izango du Usurbilgo Udalbatzarrak. Zerrendan atal berriak sartu baino lehen, behin behineko saioak egitea badago, Alkatearen ebazpenez.







18. Artikulua. Autokonposta eta auzokonposta.

- Legeriak ezartzen duen hondakinen kudeaketarako hierarkiaren goreneko mailan prebentzioa dago. Era berean, legeriak gertutasun eta autogestioaren printzipioa ezartzen du. Bi alde horiek gauzatzeko asmoz, Usurbilgo udalak udalerrian sortutako biohondakina herrian bertan konposta dadin neurriak hartuko ditu. Era berean, Usurbilgo udalak, herrian sortutako konposta herrian bertan erabiltzeko neurriak hartuko ditu.
- Bere biohondakina konpostatzen duenak, autokonpost zein auzokonpost eran:
 - Dagokion hobari fiskala izango du.
 - Ezingo du bere biohondakina bilketa zerbitzuari eman.



Usurbilgo Udala

19. Artikulua. Atez ate egindako bilketa. Edukiontziak.

-   Usurbilgo Udalak ezarriko ditu eta plazaratuko ditu hondakinak biltzeko edukiontzien ezaugarriak.
-   Biohondakinak beti ere udalak banatutako edukiontzietan utziko dira. Espresuki debekatuta dago biohondakina plastikozko poltsetan edo poltsa biodegradagarrietan sartuta egotea.
-   Atez Ateko bilketan erabilitako ontzien garbiketa zerbitzuaren erabiltzailearen ardura izango da.

20. Artikulua. Hondakin gela etxebizitza-erakinetan.


Eraikinetarako kode teknikoak (EKT) araututako etxebizitza-erakin berri guztietan egon behar duen hondakin-gelak jarraian zehazten diren baldintza guztiak bete beharko ditu:


- a) Eraikin bakoitzak gutxienez gela bat izan beharko du hondakinen biltegirako, eraikinaren eta honen lerrokaduren barnean kokatua. Eraikin bezala kontsideratzen da unitate eraiki isolatu bakoitza etxebizitza bat edo gehiago izan ditzakeena eta era berean, portale bat edo gehiago.
- b) Hondakin gelak eraikin kanpoaldetik sarbide zuzena, independentea eta irisgarria izango du, eta, ahal denean, behe solairuan egongo da. Teknikoki justifika daitezkeen kasuetan, salbuespen gisa, onartuko da erdisotokoan kokatuta egotea, beti ere ibilgailuen bidetik irisgarria badago.
- c) Ez dira onartuko kanpotik sarbide zuzena ez duten kokapenak, eta, beraz, hondakin gelaraino heltzeko eraikin barruko beste espazioetatik igaro beharreko sarbidea duen kokapenik ez dira onartuko (adibidez, garajea zeharkatu behar denean).
- d) Hondakin gelek ezingo dute beren barnean eskailerarik izan, ezta bi solairu ezberdinetan banatuta egon.
- e) Hondakin gelak eraikigarritasun konputua suposatuko du.
- f) Hondakin gelen neurri eta ezaugarriak EKT eta gainontzeko araudi aplikagarrian finkatutakoa bete beharko dute.
- g) Sustatzailearen ardura izango da hondakin getan etxebizitza bakoitzeko esekitoki indibiduala jartzea. Eraikinaren jabegoak edota bizilagunen komunitateak hala eskatuz gero, zenbait hondakin-atal bizilagun guztientzako edukiontzi komunitarioetan uztea baimendu dezake udalak.




Usurbilgo Udala

21. Artikulua. Larrialdi guneen definizioa eta erabilpen arauak.

 Larrialdi baten ondorioz, ezohiko gertaera baten ondorioz, edo bilketa zerbitzuarekin bateraezintasunak dauden kasuetan herritar, komertzio zein industriak Usurbilgo Udalak ezarritako larrialdi gunea erabili ahal izango dute.

 Larrialdi guneak hondakin mota bakoitzerako edukiontziz hornitutako egitura itxiak izango dira. Erabili ahal izateko Usurbilgo Udaleko bilketa zerbitzuak emandako giltza beharko da. Giltza, Udalak ezarritako ordutegi eta baldintzetan emango da, eta erabiltzailearen ardura izango da giltza horren erabilera.

 Bestek beste, hurrengoak izango dira larrialdiak:

- Oporraldi aurretik hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Etxe aldaketagatik hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Ospitalizazioagatik hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Lan ordutegiagatik bilketa zerbitzuarekin bateraezintasuna izatea.
- Bestelako arrazoiak, arrazoizkotzat jotzen badituzte udal zerbitzu teknikoek.

22. Artikulua. Industria eta enpresa poligonoetako edukiontzien erabilpen arauak.

- a) Usurbilgo Udalak edukiera desberdinetako edukiontziaz hornituko du erabiltzailea, bere beharren arabera. Helburua bilketarik egokiena sustatzea da.
- b) Bilketarako edukiontzia era argian identifikatu ahal izateko, Usurbilgo Udalak zuzenean edo bilketa-zerbitzuaren bitartez entregatutako edukiontzia erabil daitezke soilik. Edukiontzia, norbanakoak izango dira eta zerbitzuaren hobe beharrez soilik baimenduko da erabilera partekatua.
- c) Edukiontzia ordenantza honen xede den bilketa-zerbitzuan erabil daitezke soilik.
- d) Edukiontzia establezimenduaren edo lokalaren barruan gorde beharko dira. Ezinbestean, kanpoan geratuko balira, bilketa zerbitzuak ezarritako baldintzetan egon beharko dute.
- e) Edukiontzien kokapena, bilketa-zerbitzuarekin adostuko da eta beti bilketa-zerbitzuarentzat irigarria izango da. Adostasunik ezean, bilketa zerbitzuei dagokie bilketa-tokia zehaztea. Erabiltzailearen ardura da dagokion bilketa egunean edukiontzia zehaztutako tokian uztea eta bilketa egin ostean jasotzea.
- f) Bilketa zerbitzua edukiontzia barruan dagoenaz soilik arduratuko da, edukiontzien kanpoaldean edo inguruan aurkitutako hondakinak ez ditu bere karguan hartuko.
- g) Salbuespenez, hondakin kopuruak eta motak horrela ahalbidetzen dutenean, ez da beharrezkoa izango edukiontzian ematea, beti ere bilketa zerbitzuak alde aurretik horrela adierazi badiote erabiltzaileari.
- h) Orokorrean, hondakinen bolumena gehienera murriztuko da, baldin eta hondakinaren kudeaketa oztopatzen ez bada.



Usurbilgo Udala

- i) Edukiontzia garbi mantentzea erabiltzaileen ardura da.
- j) Edukiontzia bilketa-ibilgailuan hustu eta gero, zerbitzuak erabiltzaileari berari itzuli beharko dio, edo bestela, jasotako puntu berean utzi beharko du.
- k) Edukiontzia puskatuta badago edo bere egoerarengatik bilketa zailtzen badu, erabiltzaileak konpondu beharko du. Ez bada horrela egiten, Usurbilgo Udalak edukiontzi berriarengatik ordezkatu du eta kostua erabiltzaileak ordaindu beharko du.

III. Kapituluak. Atez ate ez diren beste bilketa arruntak

23. Artikulua. Beirazko ontzien gaikako bilketa arrunta.

- 1. Beirazko ontziak kaleetan horretarako kokatutako edukiontzietan utzi behar dira.
- 2. Beirazko ontzien bilketa sisteman ezin izango da beste motatako hondakinak utzi, bereziki, zeramika (katiluak, platerak), beirazko kopak, edo beira laua.
- 3. Utzitako ontziak hustuta egon behar dute.
- 4. Beirazko ontziak tapoirik gabe utzi behar dira. Tapoiak bestelako ontzi arinen bilketa sisteman eman behar dira.

24. Artikulua. Etxeetako landare-olioa.

- 1. Etxeetan sortutako landare olio erabilien hondakinak (LER 200126) Udalak adierazitako eran utzi behar dira.
- 2. Ostalariek eta merkatariak bere jardueraren ondorioz sortzen duten olio erabilien hondakina gaitutako kudeatzaile baten bidez kudeatuko dute.

25. Artikulua. Oinetakoak eta oihalak.





Kaleetan horretarako kokatutako edukiontzietan utziko dira, Udalak adierazitako eran utzi behar dira

26. Artikulua. Medikamentuak eta bere ontziak.

Iraungitako medikamentuak, erabiltzen ez diren medikamentuak, medikamentuen hondarrak, eta beren ontziak, botiketan entregatu behar dira.

27. Artikulua. Hiri lurreko lorategietan sortutako landare-hondakinak.

Hiri lurreko lorategietan sortutako landare-hondakinak kudeatzeko ondoko hierarkia jarraitu behar da:

-   Jabeak ahal badu, bertan konpostatu.
-   Aurrekoa ezin bada, Garbigunera eraman.

28. Artikulua. Pilak.

Etxebizitzetan agortutako pilak uzteko ondoko hierarkia jarraitu behar da:

- 1. Ahal bada, pila erosi zen establezimendu berari itzuli.



Usurbilgo Udala


2. Aurrekoa ezinezkoa bada, agortutako pila ordezkatu duen pila berria erosi den establezimendu berean utzi.
3. Aurrekoa ezinezkoa bada, Garbigunera eraman.
4. Bestela, pilak biltzeko kokatutako edukiontzietan utziko dira.


29. Artikulua. Etxebizitzetako gailu elektriko eta elektronikoak.

Etxebizitzetan baztertutako gailu elektriko eta elektronikoak uzteko, bonbillak eta fluoreszenteak barne, ondoko hierarkia jarraitu behar da:

1. Ahal bada, gailu erosi zen establezimendu berari itzuli.
2. Aurrekoa ezinezkoa bada, gailu zaharra ordezkatu duen gailu berria erosi den establezimendu berean utzi.
3. Aurrekoa ezinezkoa bada, Garbigunera eraman.

30. Artikulua. Etxe hondakin arriskutsuak.

 Etxebizitzetan sortutako etxe hondakin arriskutsuak garbigunean utzi behar dira, edota horretarako antolatutako edo baimendutako beste edozein bilketa sisteman.

 Enpresetan sortutako etxe hondakin arriskutsuak baimendutako hondakin-kudeatzaile baten esku utzi behar dira.

31. Artikulua. Garbigunea.

1. Garbigune zerbitzua eskainiko da, ondoko helburuekin:
 - Bilketa zerbitzua osatzea, beste bilketetan jasotzen ez diren hondakinak utzi ahal izateko.
 - Udalak egindako hondakinen kudeaketarako azpiegitura laguntzailea izatea.
 - Berrerabilpena bultzatzea.
 - Konpostagintza bultzatzea.
2. Garbigune zerbitzua Udalak zuzenean kudeatuko du, edo beste udalekin batera elkarlanean, horretarako legeriak aurreikusten dituen aukerak erabiliz.
3. Garbigune zerbitzua doakoa izango da etxebizitzetako erabiltzaileentzat.
4. Garbigunea kudeatzen duen entitate lokalak arautuko du bere funtzionamendua, Usurbilgo Udalarekin adostuta, eta argitara emango du Garbigunean utz daitezkeen hondakin motak.

32. Artikulua. Etxebizitzetako eraikuntza eta eraiste lan txikietan sorturiko hondakinak.

Beren etxebizitzetan bizilagunek zuzenean egindako konponketa, eraikuntza, edo eraiste lan txikietan sorturiko hondakinak, ondokoetan entregatu behar dira, hondakin-kopuruaren arabera:

- Garbigunearen erabilerarako araututako kopurua ez badu gaintzen, garbigunean entregatu daiteke.
- Bestela, hondakin mota horretarako baimendutako kudeatzaile bati.

33. Artikulua. Poligoetoako beste bilketa arruntak.

Poligoetoan kokatutako industriek poliespana hondakinak udalak horretarako prestatutako edukiontzietan utziko dituzte.



Usurbilgo Udala







Hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko, edota balioa emateko aukerak sortzen diren heinean, bilketa honetan atal berriak sartzeko aukera izango du Usurbilgo Udalbatzarrak. Bilketa honetan atal berriak sartu baino lehen, behin behineko saioak egitea badago, Alkatearen ebazpenez.

IV. Kapituluua. Bilketa bereziak.

34. Artikulua. Altzari, etxeko tresneri eta bolumen handiko hondakin bilketa.

1. Altzariak, etxeko tresneria eta hondakin handiak etxean bertan jasotzeko zerbitzu berezia antolatuko du Usurbilgo Udalak.
2. Bilketa honen helburua bere baliabideak erabiliz Garbigunera bere hondakinak eraman ezin dituztenei zerbitzua ematea da.
3. Zerbitzu honek edozein motatako altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez bada, hau da, garabi, polea, etab., behar ez badira.
4. Bilketa hau erabili ahal izateko udal bilketa zerbitzuarekin adostu beharko da aurretik hondakinak jasotzeko lekua, ordua eta ale kopurua.

35. Artikulua. Hildako etxe-animalien bilketa.

-   Debekatuta dago hildako animaliak abandonatzea, edozein lursail motan izanda ere.
-   Animalien jabeak hilotza eman behar dio hondakin mota honetarako baimendutako kudeatzaile bati.
-   Usurbilgo udalak antola dezake etxeetako animalien hiltzak jasotzeko zerbitzua. Zerbitzu honetatik kanpo leudeke abeltzaintzako ustategietan hildako animaliak, baita 2009ko urriaren 21eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1069/2009 Araudiak babesten dituen animalien gorpuak ere.

36. Artikulua. Azoka eta bestelako ekitaldi publikoetako hondakin bilketa.

1. Usurbilgo Udalak azoka zein bestelako festa, kirol jarduera, salmenta ibiltari edo ekitaldi publikoetarako hondakinak bereizita biltzeko zerbitzu berezi bat ezarriko du.
2. Derrigorrezkoa da Usurbilgo Udalerrian bereizita biltzen diren hondakin talde berak bereiztea ekitaldi berezi hauetan, eta, beraz, espresuki debekatuta dago hondakin motak nahastea. Ekitaldiaren antolatzailearen ardura da hau bermatzea.
3. Ekitaldia antolatzen duena izango da hondakin kudeaketaz eta gaikako bilketa egokia egiteaz arduratuko dena. Horretarako, aldeztu aurretik, Usurbilgo Udaleko hondakin bilketa zerbitzuarekin aurreikusten diren hondakin mota ezberdinak gaika biltzeko beharko diren edukiontzi kopurua, tokia eta modua adostuko du.
4. Ekitaldia amaitutakoan, gunea garbi egon beharko da, hondakinik gabe.



Usurbilgo Udala

5. Ekitaldi hauetan Udalak fidantza bat eskatu diezaioke ekitaldia baimendu ahal izateko, eta ez zaio fidantza itzuliko artikulu honetan ezarritako guztia betetzen ez bada.

37. Artikulua. Abandonatutako ibilgailuak.

1. Debekatuta dago ibilgailuak abandonatzea eremu publikoetan zein pribatuetan.
2. Ibilgailuaren jabearen ardura da baimendutako kudeatzaile baten eskuetan uztea baztertu nahi duen ibilgailua.
3. Ibilgailuaren jabeak ez badu betetzen aurrekoa, Usurbilgo udalak, dagokion zehapena ezartzeaz gain, utzitako ibilgailua baimendutako kudeatzaile baten eskuetan uzteko tramitazioa egin dezake, eta horren kostua ibilgailuaren jabeari ordainarazi.

III TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA.

I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.

38. Artikulua. Oinarri juridikoa.

Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duten ekintzei zigorra jarriko zaie, ordenantzan bertan ezarritakoaren arabera eta hura garatzen edota osatzen duten lege xedapenetan ezarritakoaren arabera (bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Zigortzeko ahalmena gauzatzeko prozedurari buruzko arautegia onesten duen 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea, uztailaren 22koa edo hauek ordezkatu ditzaketen gainerako lege xedapenak).

39. Artikulua. Eskumena.

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko eskumena duen organoa Alkatetza da, edo Alkatetzak eskumen horretarako eskuordetutako organoa, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 10. artikulua 4. eta 3. ataletan xedatutakoarekin bat etorritik.

40. Artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

1. Ondoko egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak izango dira Ordenantza honetan adierazitako arau hausteen «erantzuleak»:
 - (a) Ordenantza honetako arauak hausten dituzten egintzetako bat zuzenean egitea, beraien izenean edo pertsona juridiko gisa eraturiko enpresen ordezkari edo arduradun gisa.
 - (b) Arautegi hori bete dadin aurrez neurriak hartu eta hala bete dadila eskatzeko duten legezko betebeharra ez betetzea eta horren ondorioz a) atalean adierazitako pertsonetakoren batek ordenantza honetako arau-hausteren bat burutzea.
2. Hala eta aurreko puntuan ezarritakoaz ere, erantzukizuna solidarioa izango da kasu hauetan:



Usurbilgo Udala

- (a) Hondakinen jabeak, edukitzaileak edo kudeatzaileak hondakin horiek lege baimendutakoa ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkionean.
- (b) Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta horietako bakoitzak dagokion arau-urratzean zenbaterainoko partaidetza izan duen zehazterik ez dagoenean.

41. Artikulua. Ikuskapena.

- 1. Hondakin erabiltzaile, sortzaile edo edukitzaileak behartuta daude Usurbilgo Udalaren ikuskapen zerbitzuei laguntzera eta eskatutako agiriak aurkeztera, zerbitzu horiek beren zereginen barruan egin beharreko kontrolak, azterketak, informazio bilketak edo bestelako lanak behar bezala egin ditzaten.
- 2. Ordenantza honetan araututakoa betetzearen zaintza eta ikuskaritza lana zeregin hori dagokien langileen gain joango da, baita Usurbilgo udaltzainen gain ere.
- 3. Ikuskatze lanak egiten dituzten pertsonak agintaritzaren agente izaera izango dute. Ondorioz, ordenantza honetan araututako jarduerak egiten diren guneeetan aurretik ohartarazi gabe sar daitezke, baita utzitako hondakinak arakatu ere. Haiek egiaztatutako eta aktetan jasotako egintzek egitasun presuntzioa izango dute proba gisa erabiltzerakoan.

42. Artikulua. Beste administrazioen edo/eta epaitegien aurreko erantzukizuna.

- 1. Beste administrazioen aurreko erantzukizuna.

Arau-hausleak egindako urraketa beste administrazio publiko baten aurrean hutsegite izan badaiteke, Usurbilgo Udalak berehala emango dio horren berri.

- 2. Erantzukizun penala. Agintaritza judizialaren esku-hartzea.

- 2.1. Arau hausleak egindako urraketak delitu edo hutsegite izan badaitezke, Usurbilgo Udalak agintaritza judizialari horren berri emango dio.
- 2.2. Ekintza horiek direla eta udalean arau-hauste espedientea irekitzen baldin bada, ekintzak agintaritza judizialari bidaliko zaizkio eta zigor prozedura etenda geratuko da, agintaritza judizialak esateko duena esan arte.

Zehatzeko prozedura etenda egonda ere Udalak egoera lehengoratzeko hartu beharreko neurriak hartu ahal izango ditu.

- 2.3. Agintaritza judizialak ebazpena eman ondoren, ebazpena absolbitzekoa izan arren, Udalak zehapen-espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango du, epaitegiak frogatutzat emandakoak errespetatuz. Dena den, ezingo da administrazioaren zigorrik jarri agintaritza judizialak dagoeneko zigortutako arrazoiengatik.



Usurbilgo Udala

II. Kapituluak. Arau hausteak eta zehapenak.

43. Artikulua. Arau-hausteak.

Kapitulu hau hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 12.5 artikulua 49.aren batera tokiko entitateei esleitzen dien zehapen eta arau-hauste eskuduntza garatzeko arautzen da.

44. Artikulua. Arau-hauste motak

Arloko legeriak eta beste organo eskudun batzuek ezartzen dituzten arau-hausteez gain, hondakinen gaiarekin lotutako ekintzei dagokienez ordenantza honetan araututako arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1. Arau-hauste oso larriak izango dira:
 - α) Udalak dagokion errekerimendua egin ondoren, arriskutsuak eta toxikoak izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ez ematea.
 - β) Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 1.500 eurotik gorakoa denean.
 - χ) Urtebeteko epean arau-urratze larriak errepikatzea.
2. Arau-hauste larriak dira:
 - a) Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 751 eta 1.500 eurotik tartekoa denean.
3. Arau-hauste arinak dira:
 - a) Hondakin organikoak, beste hondakinekin nahastea.
 - b) Urtebeteko epean arau-urratze arinak errepikatzea.
3. Arau-hauste arinak dira:
 - Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 750 eurotik beherakoa denean.
 - Hondakinak Udalak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea, betiere ordenantza honetan arau-hauste larri bezala sailkatuta ez badago.
 - Norberaren hondakinak beste erabiltzaile bati dagokion lekuan uztea, nahita.
 - Ontziak garbitasun- eta erabilera-baldintza egokietan ez mantentzea.
 - Erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe eta derrigorrezkoa denean, berak sortutako hondakinak bilketa-zerbitzuaren esku uzteari uko egitea.
 - Hondakinak kargatzeko, deskargatzeko edota garraiatzeko lanak eragozteko edo zailtzea.
 - Administrazioaren alde aurreko baimenik gabe, hondakinak jasotzeko tresnak mugitzea, lekuz aldatzea edo behar ez bezala erabiltzea, betiere, azken kasu horretan, egoera arriskutsuak sor badaitezke edo zerbitzuko langileei hondakin-bilketa zaildu badiezaiekete.
 - Kaleko hondakin ontzietan etxeetan sortu diren hondakin poltsak uztea.
 - Bide publikoan ibilgailuak uztea.



Usurbilgo Udala

- Bilketarako tokietan utzitako hondakinak manipulatzeari, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.
- Bilketarako tokietan utzitako hondakinak lapurtzea.
- Lursail publiko edo pribatuetan hondakinak erretzea, ordenantza honetan baimendutakoak izan ezik.
- Bide publikoan aldi baterako jarrita dauden obra-hondakinak biltzeko edukiontzietan hondakinak uztea.
- Merkataritzan erabiltzen diren bilgarriak edo kartoizko kaxak tolestu gabe uztea, edo Ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe uztea, betiere horren ondorioz oinezkoen edo ibilgailuen joan- etorria eragozten bada.
- Ordenantzari jasotako gainerako arau-hausteak, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

45. Artikulua. Zigorrak.

1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauetakoren bat ezarri ahal izango da:
 - (α) Arau-hauste oso larriak egiteagatik: 1.501 € eta 3.000 € arteko isunak;
 - (β) Arau-hauste larriak egiteagatik: 751 € eta 1.500 € arteko isunak;
 - (χ) Arau-hauste arinak egiteagatik: 150 € eta 750 € arteko isunak;
2. Zigorrak ezartzeko, honakoak hartuko dira kontuan: Arau haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; urratzean parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.
3. Zigorra ezartzeaz gain, Udalak eskubidea izan dezake kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.

46. Artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak urtebete igarota.
2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.
3. Zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Usurbilgo Udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko exijitu ahal izango die erantzuleei, igarotako denbora edozein izanda ere.

47. Artikulua. Jarduketa osagarria.

1. Behar den zehapena eginda ere, arau hausleak behartuta daude gauza guztiak arau haustea egin aurreko egoerara lehengoratzera.
2. Arau-hausleek, aurreko atalean ezarritakoa beteko ez balu, udalak hertsatzeko isunak jartzea izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta



Usurbilgo Udala



Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 99. artikulua arabera, dagokion errekerimenduan ezarritako epeak igaro ondoren.

Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren herena baino gehiagokoa.

3. Bestalde, kasu hauetan, eta lehengoratzeko lanak egiten ez badira, Udalak betearazte subsidiarioari ekin ahal izango dio, arau-hauslearen kontura eta kargura.
4. Zehapenen kopurua, kalte-ordainen kopurua eta lehengoratzeko-lanen kostu ekonomikoa premiamenduzko administrazio bidea erabiliz exijitu ahal izango dira, dagozkion ebazpenak bide horretan finkoak direnean.

1. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren gai guztietan *hondakinei eta kutsatutako lurzoruei* buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, edo lege hau ordezkatzeko duenak, xedatutakoari men egingo zaio edo baita aplikagarri izan daitezkeen gainerako araudiei ere.

2. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honen euskarazko eta gaztelarazko bertsioen arteko alde semantikoak agertuko balira, euskarazko bertsioa izango da balio duena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabetuta eta ondoriorik gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta honek dioenaren aurkakoak edo kontrajarriak badira.

AZKEN XEDAPENA

Bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost lanegunetara sartuko da indarrean ordenantza hau.

Ordenantza hau Hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 20/2011 Legearen 12.5. atalak eta 2. Xedapen Iragankorrek tokiko entitateei esleitzen dien eskuduntzaren baitan landu da. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren baitan izapidetuko da eta bere onarpena Udabatzaren Osoari dagokio aipatu araudiko 22.2.d. eta 49. artikuluetako xedapenen arabera.



Usurbilgo Udala

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabetuta eta ondoriorik gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta honek dioenaren aurkakoak edo kontrajarriak badira.

Guzti hau kontutan izanik, Ingurumen Batzordeak, 2014ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Jose Mari Rivadeneyra, Iñaki Ugarte eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin, Josune Urkia eta Ricardo Cresporen aurkako botoekin, eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz proposatutako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen udal ordenantza hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, udal ordenantza jendaurrean jartzea 30 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, eta, beraz, Plenoak ez du horren gainean erabaki berririk hartu beharrik izango. Dena den indarrean jartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean udal ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, diktamena gehiengoz onartua izan da.

7.- HONDAKIN BILKETA ZERBITZUAREN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

Jose M^a Rivadeneyrak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

Adierazi du puntu hau aurrekoarekin lotuta dagoela, hain justu ere sortzez besteko bilketa ezartzearekin. Asmo hori ingurumenarekiko errespetuak agintzen digun urrats bat



Usurbilgo Udala

dela esan du, baina kasu honetan zorionez legeak ere horretara bultzatzen duela gaineratu du. Gai honetaz legeak diona aipatu du, konkretuki Hondakinen eta Zoru Kutsatuen 22/2011 Legearen 11. artikulua: *“Costes de la gestión de los residuos. De acuerdo con el principio de quien contamina paga, los costes relativos a la gestión de los residuos tendrán que correr a cargo del productor inicial de residuos, del poseedor actual o del anterior poseedor de residuos...”*, eta berean 16. artikulua omen dio: *“Medidas e instrumentos económicos. Las autoridades competentes podrán establecer medidas económicas, financieras y fiscales para fomentar la prevención de la generación de residuos...”*, eta hori dela esan du sortzez besteko ezarpenarekin bilatu nahi dena, hau da, kostuen karga justuago bat egitea, sortzen duenak ordaindu dezala. Printzipio hau dagoeneko enpresetan aplikatzen dela adierazi du, baina ez etxebizitzetan eta hori dela dio orain eman nahi den urratsa.

Proposatzen dela dio etxebizitzetako tasa izatea zati bat finkoa eta beste zati bat aldakorra, azken zati hori izango delarik sortutako errefusaren arabera. Hau lehenengo urratsa izango litzatekeela esan du, zeren idealena politika hau frakzio guztietan aplikatzea izango bailitzateke. Beraz, oraingoz errefusarekin hasiko direla esan du eta gaineratu du kontutan hartu behar dela frakzio hau dela kostu gehiena sortzen duena, garestiena bere tratamenduan eta garestiena ingurumenean duen eraginagatik.

Bestalde, beste aldaketa txiki bat ere badagoela esan du konpostaren tratamendu fiskalean eta konkretuki auzo-konpostarenean. Orain arte auzo-konpostaren tratamendua auto-konpostaren berdina izan dela esan du, hau da, %40ko hoberia aplikatzea. Horren justifikazioa zen, sortzen dugun hondakinen %40a gutxi gorabehera bio-hondakina denez eta hori konpostatzen duenak hori ateratzen ez duenez, proportzio berean murrizten zaio bere hondakin tasa. Auzo-konpostarekin bi urte daramatzatela esan du eta ikusi dutela dio segun eta nola egiten den udalarentzat kostu bat badagoela. Bi motatako auzo-konpostaguneak daudela esan du, batzuk hasierako filosofia bete-betean jarraitzen dutenak dira eta bizilagunek modu autogestionatuan kudeatzen dute beraien hondakina. Kasu horretan %40ko hoberia mantentzea proposatzen da. Beste kasu batzuetan, ordea, udalak laguntzen duela adierazi du, ez da guztiz auto-gestionatua, eta horrek udalari kostu bat sortzen dio. Azken kasu honetan %20ko hoberia aplikatzea proposatzen dela esan du.

Aldaketa hau esan du gehiago dela kualitatiboa kuantitatiboa baino. Azken finean, gauzak ondo egiten direnez, errefusa gutxi sortzen da eta ondorioz eragin ekonomikoa ez dela oso handia izango adierazi du. Orokorrean, familia gehienek ez dutela aldaketarik ikusiko beraien tasan esan du. Errefusa oso gutxi ateratzen dutenei tasa zertxobait jetsiko zaiela dio eta asko ateratzen dutenei zertxobai igo.

Ricardo Crespok hitza hartu du eta auzo-konpostari dagokionez bere iritzia eman du esanez hoberia kendu edo murriztu ordez hobari hori mantendu egin beharko litzatekeela, konposta hori ondo egiteko udaletxeak baliabideak jarritz.



Usurbilgo Udala

Jose M^a Rivadeneyrak erantzun dio aukera hori hor dagoela eta auzo-konpostaguneak jarri zituztenean hori zela beraien ideia eta lehentasuna, eta mantentzen dutela gaineratu du, baina era berean esandako bigarren aukera edukitzeko beharra ere ikusten dutela esan du. Idealena auzo-konpostagune auto-gestionatuak izatea litzatekeela adierazi du, eta ordenantza fiskal honen helburuetako bat hori dela esan du.

Batzarkideek, Ogasuna Batzorde Informatzailearen diktamena azertu dute eta gehien-
goz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Orain arte indarrean dagoen hondakin bilketa zerbitzuaren ordenantza fiskala aldatzeko, proposamena aurkeztu du udal gobernuak martxoaren 10eko Ogasun Batzorde bileran.

Ogasuneko Batzorde Informatzaileak, gehien-
goz, Alaitz Aizpurua, Mertxe Aizpurua, Jone Urdampilleta eta Jose Ramón Furundarenaren aldeko botoekin, Luismari Ormaetxearen aurkako botoarekin eta Ricardo Crespo eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, hondakin bilketa zerbitzuaren ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzeko hurrengo proposamena hasierako izaeraz onartzea eta jendaurrean jartzeko erabakiak hartzea proposatu dio Udal Batza Osoari eta honeko gehien-
goz onartu ditu.

Horra jarraian, aldaketa zertan datzan:

B) Hondakin zerbitzuak

1.-Zerbitzu orokorra

Tarifak bi zati izango ditu: finkoa eta aldakorra.

1. Tarifa finkoa, erabiltzaile motaren arabera. Ondoko taulak jasotzen duena da:

Taula 1: Hondakin bilketaren tarifa finkoa.

Erabiltzaile mota	Tarifa €/ hiruhileko
1.- Etxebizitzak	
Hiriguneko etxebizitzak	16,94
Landa eremuko etxebizitzak	14,67
2.- Merkatal establezimenduak	
Sortzaile txikiak	16,94
Sortzaile txikiak landa eremuan	14,67
Beste establezimenduak	
OBZ (Oinarrizko bilketa zerbitzua) – organikoa	31,43



Usurbilgo Udala

OBZ – organikoa landa eremuan	20,45
OBZ	83,83
OBZ landa eremuan	54,60
OBZ - organikoa + papera estra	45,27
OBZ + organikoa estra	138,96
OBZ + organikoa estra + papera estra	152,79
3.- Poligonoetako Industriak eta merkatal guneak	
Industria eta merkatal guneak – organikoa	120,29
Industria eta merkatal guneak	384,68
Industria sortzaile txikiak	20,95
4.- Beste zerbitzuak	
Poligonoetako egur zerbitzua	55,45
Poliespana uzteko zerbitzua:	
Sortzaile handiak (marisko enpresak)	105,86
Sortzaile txikiak (arraindegi eta gainerakoak)	52,93

Azalpenak:

5. Merkataritzako Oinarrizko Bilketa Zerbitzua atez ate egiten den bilketa da, udalak definitutako frakzioak jasoz.
2. Tarifa aldakorra, sortutako errefusa kopuruaren arabera eta erabiltzaile motaren arabera. Ondoko taulak jasotzen duena da:

Taula 2: Errefusa unitatearen kostua.

Ontziaren Bolumena (litro)	€Unitatea	€unitatea < 0,1 kg/l komertzioak	Nahastua bada
10 L (etxebizitza)	0,68	-	1,95
40 L	9,62	1,93	29,15
50 L	9,96	1,99	30,28
120 L	12,35	2,49	38,18
240 L	16,63	3,33	51,72
360 L	20,83	4,18	65,26
1000 L	43,29	8,67	137,49

2.1.-Hondakin sanitarioak eta pardelak.

Egunero biltzen diren hondakin sanitario eta pardelak dohainik jasoko dira eta ez da errefusa unitate bezala zenbatuko.

2.2.-Dentsitate gutxiko errefusa.



Usurbilgo Udala

Komertzioen errefusa dentsitatea 0,1Kg/l baino urriagoa bada errefusaren tarifak ezberdina izango dira. Interesatuak eskatuta Udalak errefusaren dentsitatea zehaztuko du eta emaitzaren arabera kobratuko zaio errefusa unitatea. Kasu hauetan, errefusa zatikiak homogenea izan beharko du eta Udalak eskumena izango du nahi duenean dentsitatea ziurtatzeko.

2.3-Sortutako errefusa kopuruaren balioespena.

Hondakin bilketa zerbitzuak erabiltzaile bakoitzak sortutako errefusa unitateak zenbatuko ditu. tarifa ordaintzeko epealdi batean, erabiltzaile batek benetan sortutako hondakin-kopurua zenbatzerik ez badago, kopuru hori aurreko epealdian zenbatutakoa dela balioetsiko da, eta horren arabera kalkulatu da bere tarifaren zati aldakorra.

Aurreko epealdian ere sortutako errefusaren bolumena ezin bazen erregistratu, ondokotulan agertzen diren hondakin nahastutako bolumenak balioetsiko dira dagokion tarifa orokorra ezartzeko:

Taula 3: Sortutako errefusa kopuruaren balioespena.

Erabiltzailea	Asteko balioetsitako nahastutako errefusa unitate bolumena
Etxebizitza (15 m3 ur kontsumoa baino gutxiagoa dutenean irakurketa epealdian)	0 litro
Etxebizitza (15 m3 ur kontsumoa baino gehiago dutenean irakurketa epealdian)	40 litro
Merkatal establezimendua	120 litro
Industria eta merkatal guneak	360 litro

Hurrengo fakturazio-aldian normaltasunean neurtzen bada zergadunak sortutako hondakin-kopurua, aurreko aldian balioetsitako fakturazioarekin konpentsatuko da, hala gehiegizko nola gutxienezko kasuan.

Sortutako hondakin kopuruaren balioespenari ere ekin ahal izango zaio, Hondakin-Udal Zerbitzuan jasotako datuak ikusirik, bertan irudikatzen diren kopurua, erabiltzaileak izan ohi duen hondakinen sorrera-erregimenarekin bat ez datozenean.

Etxe, merkatal establezimendu, industria edo merkatal gune batek justifikatzen badu epealdi horretan ez duela errefusarik sortu, ez zaio balioetsitako errefusa unitaterik ordain araziko.

2.-Zerbitzu bereziak

Taula 4: Bilketa berezien tarifak.



Usurbilgo Udala

Zerbitzua	tarifa
Tamaina handiko hondakinen bilketa	13,21 € zerbitzuko

3.-Hobariak

1. Etxebizitzetara ezarritako tarifari ondoko taulan jasotako hobaria ezarriko zaio, diru-sarreraren arabera, eta dagokion dokumentazioa udalean aurkeztuz gero.

Taula 5: LGS. Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arabeko hobariak.

Etxean bizi den pertsona kopurua	Hobaria		
	%90	%75	%50
1	< 1,1 LGS	1,10 LGS+1 tik 1,25 LGSra	1,25 LGS +1 tik 1,50 LGSra
2	< 1,44 LGS	1,44 LGS +1 tik 1,63 LGSra	1,63 LGS +1 tik 1,96 LGSra
3	< 1,57 LGS	1,57 LGS +1 tik 1,79 LGSra	1,79 LGS +1 tik 2,15 LGSra
4 edo +	< 1,69 LGS	1,69 LGS +1 tik 1,93 LGSra	1,93 LGS +1 tik 2,31 LGSra

2. Etxebizitzetara ezarritako tarifaren zati finkoari %40ko hobaria ezarriko zaio etxebizitza horren bihondakina autokonpost erabileraren bidez.

3. Auzokonposta egiten duten etxebizitzetan, udalak lagundutako gunea baldin bada (konposta hustu edo bestelako lanik balego) hondakin bilketaren tarifaren zati finkoek %20ko hobaria izango dute. Bestela, hiritarrek bere auzokonpostagunea autogestionatzen badute erabat, hobaria tarifaren zati finkoaren %40koa izango da.

Onartuko balira, tarifa berriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hiruhilabetean sartuko dira indarrean.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia,



Usurbilgo Udala



Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, diktamena gehiengoz onartua izan da.

8.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

8.1.- EUSKAL SOZIALISTAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TREN PASAGUNEAK EZABATZEA.

Ricardo Crespok mozioa irakurri du.

Alkateak adierazi du mozioaren alde bozkatuko dutela, batez ere, atentzioa deitu ahal izateko. Ricardori adierazi dio mozio hau aurkeztera zihoala aldez aurretik komentatu izan balie, seguruenik beste modu batetan planteatuko zuketela. Zortzi pasagune horiek maila berean kokatzen dira mozioan eta beraien ustez ez dute inportantzia bera. Horietatik bi, adibidez, mendiko pasaguneak dira eta, beraz, garrantzia ez da berdina.

Pasabideen inguruan hainbat bilera egin dituztela esan du. 2012an, adibidez, PSOE-k honen ardura zuzena zuenean Bilbon egindako bilera batetan adierazi ziela esan du Usurbilgo Udalaren lehentasunak zirela Troiako pasabidea eta, batez ere, Atalluko pasabidea.

Bilera hura eta gero, Thyssen Krupp enpresak Usurbilera etortzeko asmoa agertu izanak ere kointziditu zuela esan du. Hori horrela, enpresa Atallun jarri ahal izateko errotonda berria egitea beharrezkoa zen kamioiak bertatik pasatzeko, eta errotonda berri hori egitea ETSri zegokiola adierazi du. Garai hartan ETSk esan omen zuen errotonda hori egiteko dirurik ez zeukala eta Thyssen Krupp enpresarekin hitzeginez, lortu zena izan omen zen enpresak eta lur hori erosi zuen inbomobiliariak diru hori aurreratzea eta hitzarmen baten bidez errotonda egin ahal izatea ahalbideratu zela aditzera eman du.

Garai hartan ere Udala proiektua ikuskatzera joan zenean ikusi omen zuten Troiako pasabidea oso leku txarrean jarrita zeukatela, Txara parean. Beraien ustez zentzurik ez zuen lekuan, eta hori aldatzeko eskatu omen zuten.

Eusko Jaurlaritzan aldaketa egon zenean, 2013an, berriz ere eskaera berdinekin joan zirela esan du eta kasu honetan ere aurrekontuaren arazoa jarri ziela mahai gainean



Usurbilgo Udala



adierazi du. Dena den, kontutan edukiko zutela esan omen zitzaien. Hala ere, azpimarratu du noizean behin deitzen jarraitzen dutela.

Azkeneko aldian, duela hilabete bat, Udalak bilera bat eskatu zuela esan du, nahiz eta telefonoz aurreratu zuten aurtengorako ez zegoela aurrekonturik. Hala ere, Atalluko pasabidea egiteko proiektua egina dagoela esan du, 800.000 euroko kostua omen du, eta kostu horretan goian doan tren geltokia eraikitzea sartu gabe dagoela gaineratu du.

Haseran esan duen moduan beraiek agian mozioa beste era batetara planteatuko zutela esan du baina aurkeztu dena ondo iruditzen zaie, atentzioa deitu behar dela uste dute eta alde bozkatuko dutela esan du.

Ricardo Crespok adierazi du mozio hau aurkeztearen asmoa hori zela, hau da, arazoak oihartzun gehiago izatea.

Bestalde, aurretik beste taldeei honen berri eman ez izanagatik barkamenak eskatu ditu.

Batzarkideek, Euskal Sozialistak udal taldeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“ZERGATIEN AZALPENA

Trenbide sarearekin beste errepide edo komunikabideen nahasketak eta gurutzaketak direla errealitate bat da. Gainera gertakaera hau azpiegituren garapenaren ondorioz izan da.

Dauden tren pasaguneak murrizten joan behar dira nabarmen, aldi berean dauden tren pasaguneetan segurtasun neurriak bermatu eta areagotu egin behar dira.

Komunikabideen sareak nahasten diren lekuetan segurtasun neurri handienak lortu behar ditugu, kotxe eta oinezkoekin istripuak saihestu arren. Helburu hauek era bat berrituko genituzke tren pasagune guztiak ezabatzen baditugu. Hala ere, ezabatzeko neurriak ezin ditugu beti aurrera eraman, aurretik dauden etxebizitzak eta herrien egitura dela eta.

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan 107 tren pasagune daude eta 23 nasen arteko pasabide Eusko Trenbide Sare barruan.

Eusko Jaurlaritzak bi era dauzka tren pasagune horiek ezabatzeko. Trenbideen estalzerako obrak direnean edo trenbideak zabaltzerako orduan; edo eta bereziki egindako obren barruan inplikaturik dauden instituzioekin egindako hitzarmenen ondorioz.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailak, 2014an bere aurrekontuetan 300.000€ partida jasotzen du tren pasaguneak ezabatzeko, baina diru horren helburua Durangon erabiliko da, Zarabarra eta Alluitzen. Hori dela eta, ezinbestekoak



Usurbilgo Udala



egiten da Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoarekiko duen konpromisoa adierazteak eta Gipuzkoan egoera berdinean dauden 15 herrietan kontuan izateak.”

Hori guztia dela eta, Udalbatza Osoak, aho batez, honako mozioa onartu du:

1. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dei egiten dio, herrian dauden 8 tren pasaguneak eta nasen arteko pasabidea ezabatzeko. Gure Herria Gipuzkoan dagoen tren pasagune gehien duen herria delako eta Euskal Autonomi Erkidegoan bigarrena izanik Euskal trenbide sarean.
2. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, Euskal Trenbide Sareari (ETS) eta Eusko Legebiltzarrari akordio honen berri emango dio.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Iurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.